

84.000 lagun baino gehiago urreratu ziren Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz jaialdiaren lehen ediziora

- Arabako hiriburukoak, EAEkoak, Aragoikoak, Gaztela eta Leongoak, Gaztela-Mantxakoak, Nafarroakoak eta Errioxakoak ziren ikusleak
- 000 bat pertsonak eskatu zituzten argibideak jaialdiaren informazio guneetan eta 32.000 egitarau inguru banatu ziren

Antolatzaileen kalkuluen arabera, 84.000 lagun baino gehiagok bisitatu eta gozatu zuten otsailaren 21etik 23ra bitartean Gasteizen egin zen Umbra Light Festival jaialdiaren lehen edizioan erakutsi ziren instalazio eta proiektioez. Bisitari-kopuruak gora egin zuen egunek aurrera egin ahala: otsailaren 21ean (osteguna) 18.470 bisitari izan zituen, 22an (ostirala) 28.149 pertsona zenbatu ziren eta 23an (larunbata) 36.949 izan ziren erakusgaiak ikustera urreratu zirenak.

Jaialdiko antolatzaileek Loma Jeneralaren plazan eta Agirre Lehendakariaren kalean (Arkupeen aurrean) jarritako informazio-guneetan jasotako datuen arabera, hiriko eraikin, lorategi eta espazio publikoetan proiektatutako argi-sorkuntzek markatutako ibilbidean zehar jatorri askotako jendea ibili zen, besteak beste, gasteiztar eta arabarrak, EAEkoak, Aragoikoak, Gaztela eta Leongoak, Gaztela-Mantxakoak eta Errioxakoak.

Informazio-gune horiek, Espainiako plazako Gasteizko Udalaren Turismo-bulegoarekin batera, 15.000 pertsona ingururen kontsultei erantzun zieten eta jaialdiko 32.000 egitarau baino gehiago banatu zituzten.

Bisitarien jatorrira itzulita, aipatzekoa da Madrileko eta Valentziako Erkidegoko bisitari ugari bertaratu zirela. Jaialdiak iraun zuen hiru egunetan Gasteizko hotelen okupazioa oso altua izan zen eta % 100era heldu zen hainbat establezimendutan, bereziki otsailaren 23an (larunbata).

Espania plazan egin zen inaugurazio ofiziala dLux & Oído artistek sortutako *Eclipse* izeneko “video mapping”-a Udaletxearen fatxadan proiektatuz, eta, hain zuzen ere, ikuskizun hori izan zen Umbra Light Festival jaialdiak iraun zuen bitartean bisitari gehien jaso zituen guneetako bat. Beste gune arrakastatsu bat Probintzia plaza izan zen, non Aitori Oñederra eta Elisa Ruedak *Neuk ere amets bat daukat* proiektatu zuten Foru Aldundiaren eraikinean.

Ezequiel Nobili artistak Erdi Aroko harresian eta Frai Zacarias kaleko lorategien plazan muntatutako piezek bisitari asko jaso zituzten, baina baita jaialdia osatu zuten gainerako instalazioek ere. Gainera, bisitarien jariora etengabea izan zen eta, asteburuak aurrera egin ahala, gora egin zuen. Hala, otsailaren 23ean (larunbata) hurbildu ziren bisitari gehien instalazio guztietara, eta otsailaren 21arekin (osteguna) alderatuta, % 83ko gorakada gertatu zen.

Montehermoso kulturunean eta Ur-biltegian *Renacer* eta *Buscando la vida* erakutsi ziren Studio&Light proiektuaren eskutik; *#Kontrastafrika*, *Gasteizko garaipena* eta *Denboraren harira* muralen gainean proiektzioak egin zituzten Emilio Valenzuela, Jordi Bonet eta Joan Rodón artistek; Eskoriatza-Eskibel jauregian *Stratum* egon zen ikusgai Studio Chevalvert & Mirage Festival sortzaileen eskutik; Santa Maria plazan Philippe Morvan artistak sortutako *Dot* zegoen; Juan Gómez-Cornejok guztiz eraldatu zuen San Maria Katedraleko Kripta *Las monedas de Caronte* lanarekin; Florida parkeko musika-kioskoan Playmodes taldearen *Zootrop* ikusi zuten bisitariak; Maria Inmaculada Katedraleko lorategietan, Javier Riera artistaren Berdeko Konstelazioa zegoen; Foru Plazan Illusion Stage-en *Respira Vida* erakutsi zen; San Migel Elizaren ataria eraldatu egin zuen Anna Rosa Rupp-ek bere *Lightprint/Indefinite Nations* lanarekin; Alamedako Markesaren plazan Nestor Basterretxea handiaren *Argi Kutxak* erakutsi ziren, Talka Galeriaren eskutik; eta, amaitzeko, Peñafloidako Kondearen plaza Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskolakoei eraldatu zuten.

Sorkuntza-lan horiez guztiez gain Argizko kalejira ere izan zen, CiaMajareta konpainiaren eskutik eta, horretan, *Babie Giants*, *Pegasus* eta *Transformers* pertsonaiek kaleak eta publikoa alaitu zituzten. Horrek biribildu zuen antolakuntza eta bisita-kopuruaren ikuspuntutik oso arrakastatsua izan zen jaialdia. Azpimarratzeko da, bestalde, arrakasta horretan garrantzia handia izan zutela antolakuntza- eta informazio-lanetan musu truk laguntzen ibili ziren 80 bat boluntarioek.

Argiztapen-diseinuaren eta arkitekturaren arloko profesionalen zuzendaritzapean

Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz proiektua Carlos Torrijos eta Rafael Gallego argiztapen-diseinatzaileen eta Joaquín Pérez-Goicoechea arkitektoen zuzendaritzapean egin da, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko udalaren laguntza jaso du.

Más de 84.000 personas asistieron a la primera edición de Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz

- Procedentes de la capital alavesa, Euskadi, Aragón, Castilla y León, Castilla-La Mancha, Navarra y La Rioja
- Casi 15.000 ciudadanos solicitaron información en los puestos informativos del festival y se repartieron 32.000 programas

Más de 84.000 personas visitaron y disfrutaron de las instalaciones y proyecciones de la primera edición de Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz que tuvo lugar entre los días 21 al 23 de febrero, según las estimaciones de la organización. El número de personas asistentes fue creciendo con el paso de los días con un promedio de 18.470 personas el jueves 21 de febrero, 28.149 personas el viernes 22 y 36.949 personas el sábado 23.

El recorrido por las distintas intervenciones de luz sobre edificios, jardines y espacios públicos de la ciudad fue seguido con éxito tanto por la ciudadanía de Vitoria-Gasteiz y Álava como por personas procedentes del resto de Euskadi, Aragón, Castilla y León, Castilla-La Mancha, Navarra y La Rioja, según los datos de los dos puntos informativos del Festival situados en la Plaza del General Loma y en Lehendakari Aguirre, frente los Arquillos.

Estos puntos informativos, junto a la Oficina de Turismo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ubicada en la Plaza de España, atendieron a cerca de 15.000 personas y repartieron más de 32.000 programas del Festival.

Madrid y la Comunidad Valenciana despuntaron también como comunidades autónomas de origen de un número significativo de personas que disfrutaron del Festival durante tres días en los que la ocupación hotelera en Vitoria-Gasteiz fue muy alta, llegando al 100% en varios establecimientos, especialmente el sábado 23 de febrero.

La Plaza de España, escenario de la inauguración oficial con el 'video mapping' *Eclipse* sobre la fachada del Ayuntamiento, obra de dLux & Oído, ha sido uno de los espacios que mayor número de visitantes recibió durante los tres días de celebración de Umbra Light Festival, seguido por La Plaza de la Provincia, donde Aitor Oñaderra y Elisa Rueda pusieron en escena *Yo también tengo un sueño* en la fachada del Palacio de la Diputación Foral.

Las intervenciones sobre la Muralla Medieval y la Plaza de los jardines de Fray Zacarías, por parte del artista Ezequiel Nobili, recibieron también numerosas visitas, al igual que el resto de instalaciones que formaron parte del programa del festival, visitas que fueron constantes y en ascenso a medida que el fin de semana avanzaba. Así, el sábado 23 de febrero fue el día con mayor número de visitantes en todas las intervenciones, con un incremento del 83% respecto al jueves 21 de febrero.

El Centro Cultural Montehermoso y el Depósito de Aguas, con *Renacer* y *Buscando la vida*, de Studio&Light; las intervenciones sobre los murales *#Kontrastafrika*, *El Triunfo de Vitoria* y *Al hilo del tiempo*, por parte de Emilio Valenzuela, Jordi Bonet y Joan Rodón; el Palacio Escoriaza-Esquivel con *Stratum*, de Studio Chevalvert & Mirage Festival; la Plaza de Santa María, de la mano de Philippe Morvan con *Dot*; la Cripta de la Catedral de Santa María, transformada gracias a *Las monedas de Caronte* por Juan Gómez-Cornejo; el Quiosco de Música del Parque de la Florida, con *Zootrop* de Playmodes; los Jardines de la Catedral María Inmaculada, con *Berdeko Konstelazioa* (Constelación en verde) de Javier Riera; la Plaza de los Fueros y *Respira Vida*, de Illusion Stage; el Pórtico de la Iglesia de San Miguel, intervenido por Anna Rosa Rupp y su *Lightprint/Indefinite Nations*; la Plaza del Marqués de la Alameda con *Argi Kutxak/Cajas de Luz* del mítico Néstor Basterretxea, gracias a Talka Galería; y la Plaza del Conde de Peñafiorida con el trabajo de la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz.

Todas estas intervenciones, junto al pasacalles de luz de CiaMajareta, que con sus *Babie Giants*, *Pegasus* y *Transformers* animaron las calles y al público asistente, completaron el programa de esta primera edición que se cierra con éxito de organización y público. Un éxito del que también son partícipes las cerca de 80 personas voluntarias que colaboraron de forma desinteresada en las labores organizativas e informativas.

Dirigido por profesionales del diseño de iluminación y arquitectura

Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz es un proyecto dirigido por los diseñadores de iluminación Carlos Torrijos y Rafael Gallego, y el arquitecto Joaquín Pérez-Goicoechea, que cuenta con el apoyo del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.